


Nerea Urteaga Riaño

D maila • 3 saria

Kaixo, Nerea Urteaga naiz. 2004ko apirilaren 7an jaiozko beasaindarra. La Salle San José ikastetxeiko DBH 2. maila burutzen ari naiz. Nire zaletasunak eskulanak egitea, marraztea, musika entzutea eta, nola ez, lagunekin egotea dira, besteak beste. Padel-ean jolasteak tentsioa askatzeko balio badit ere, irakurketak besteen larruazalean sartzeko aukera ematen dit.



Sarituen artean beste aldi batez egotea ohore bat da niretzat, gogoz idatzi baitut ipuin hau. Saria nire familia osoari eskaintzen diot.

PARADISUAN PRESO

Haize zakarrak eragindako hotzikarak esekitokitik lanazko txaketa berdea hartzera eraman nau. Jantzi, leihora hurbildu eta lorategiari so geratu naiz. Parean aurkitzen den haritzaren adarrak kulunkan dabilta. Uda eta udazkenaren arteko lehia horretan, udazkena gailenduko da, dagoeneko zuhaitzak prestatu baititu negu hotzari aurre egiteko. Hostoak adarrei sendo ezin eutsiz, lurrera jausiko dira eta herriko kaleak amen batean, hostoz egindako alfonbra gorrixka eta laranjaz estaliko dira. Gaur, aspaldiko partez, hodeiak belztu dira, lehen euri-tantak kristaletan behera doaz eta horrela izan da, paisaiarekin batera, nire oroitzapenak lausotuz joan direla.

Nire alaba Maite Alemaniatik bueltan bada ere, badira hiru hilabete oso-osorik hementxe eman ditudala. Izan ere, bere senarrak erretiroa hartu orduko hasi ziren esamesak: *“Orain arte egin gabekoak egitera, Maitetxu! Denbora urrea da... Askok dira erretiratu ahala gaixotu direnak, gogoratu bestela Erramun eta Patxirekin”*. Alemaniarako bidaia aitzakia polita suertatu zen zaharren egoitza baten bila hasteko.

“Zuzeneko arreta, erabiltzailea nagusi, autonomia, duintasun eta garapen pertsonala bermatzen duen egoitza. Astean behin animazioa, errehabilitazio eta erizaintza zerbitzu finkoak; arratsaldero tailerrak eta hiru hilero irteera. Hiru mila metro karratu erabilgarri, lau solairutan banatuta, espazio zabal eta lasaiak, lorategi ederra...”

- Resort horietako batean bezala! Paradisua dirudi, *atte*!

Familiaren bete-beteko ardurak bere ondorioak izaten dituela jakin arren eta etorriko zena susmatzen banuen ere, ez nuen atsegin izan.

Hasiera hasieratik jabetu nintzen *atte* hitza bere ahotik entzuteak, nire suhiaren ahotik alegia, ez zidala ezer onik ekarriko eta hautsak harrotzen hasi baino isiltzea otu zitzaidan. Ondoan nire alaba Maite, behera begira, ahots apalez esanez inguruan topa zezaketen egoitzarik hoberena zela. Bihotzeko Maite, gaixoa!

Maitasuna itsua izateaz gain, batzuetan gorra badela uste dut. Maiteren bihotzak nolatan aukeratu zuen Luix Mari misterio hutsa da niretzat eta Mikel, semearena, zer esanik ere ez. Estatu Batuetara joan zenetik ez dut apenas ikusi. Emaztea mexikarra du. Ikerketa beka batekin Kaliforniara joateko aukera izan zuen eta bertan ezagutu zuten elkar. Unibertsitateko jangelako sukaldaria da Lupe. *"Inoiz jan ditudan taco-rik hoberenak prestatzen ditu.* Hi bai, ergela! Taco-ak Euskal Herrian noiz jan dira? Taloak motel, ta-lo-ak! Ez al duk sorterriaren falta sentitzen?

Hiru seme-alaba izan dituzte eta aitona Joxemielekin urtean bitan gogoratzen dira, urtebetetze egunean, bata, Eguberrietan, bestea. Edonorri zuzendu ahal zaizkion lerroak idazten dizkirate, nonbaitetik aterata baleude bezala eta sentimendu zipitzik islatzen ez duten horietakoak dira.

Bene-benetako *aitona titulua* Beñat jaio zenean eskuratu nuen, nire begietako Beñat beso artean edukitzeak hainbeste gogobeteko ninduenik ez nuen uste. Erditze ostea gogorra izan zen, odol-transfusioa behar izan zuen Maitek, komeriak eman zizkion eta etxera ahul iritsi zen. Hori dela eta, Beñaten sehaska nire logelan jartzea egokiena litzatekela adierazi nienean ez zuten inongo eragozpenik jarri. Luix Marik, ordea, lasaitu ederra hartu zuela beti pentsatu izan dut.

Aitona izateari gogotsu bezain samurki ekin nion eta bion arteko konplizitatea laister nabaria izan zen. Biriketako gaixotasun batek gogor jo zueneko irudiak nire erretinan ditut. Momentu latzak bizitakoak! Denbora luzez etxean geratu behar izan zuenez, sasoi horretan izan zen puzzle eta eraikinen mundua ezagutarazi niola Beñati. Horrez gero orduak eman ditugu elkarrekin dorre, garabi eta monumentuak eraikitzen. Pilota eta bertsoetarako zaletasuna bilobarengan piztea ere lortu nuen, semearengan ez bezala.

Paradisuan preso sentitzen ez naizen une bakarra Beñat nirekin dagoenean da. Ia astero bisitan datorkit eta bere presentzia hutsarekin bizkortzen naizela sentitzen dut, Karmele erizain atseginak dioen bezala *"Beñat harreran ikusi bezain pronto bastoia soberan daukazu, Joxemiell".* Berarekin egoteak on egiten dit, poz handia hartzen dut eta nire bilobaren ondoan harro ibiltzen naiz paseoan. Arkitekturako amaierako proiektuarekin guztiz lanpetuta dabilen arren, betiere aitonarekin egoteko tartetxo bat hartzen du. *"Motorra hartu eta berehala naiz zurekin".*

Londres hiriko Dorre Zubia da esku artean dugun puzzlea, *"Lan ederra burutzen ari garena, aitona... Oztopo geografikoak sahiesten dituen eraikina da zubia... Gurutzetxoaren pieza eta lixto!... Ez da egia izango bukatzeko behar dugun pieza falta izatea ala?... Ze demontre! ..."* Nahiz eta gela hankaz gora jarri dugun, piezaren arrastorik ez. Ohe azpia, mahai azpia, armairuko tiraderak, izarak, besaulkiko kuxinak, bainugela eta bainugelako armairutxoak. Dena miatu dugu baina piezaren berririk ez, hau marka! *"Ez larritu, aitona, azalduko da eta! Bihar klaseak bukatu eta etorriko naiz. Ziur ordurako falta den pieza aurkitu duzula".*

Goizeko freskurarekin batera esnatu naiz, irratia piztu eta bilaketarekin hasi baino lehen nire eguneroko arnasketa ariketak egin ditut. *"Eguraldi iragarpenarekin hasi aurretik..."* Luzatze-ariketak egiten ari naizen bitartean, zutikako lanpararen etengailu eta gortinaren artean, ustez, hildako euli mando bat zapaldu dut. Makurtu eta euli mandoa baino, hau zoriona! Hementxe, ditzosozko pieza. *"Azken orduko albistea..."* Beñat etorritakoan berak jarri dezala, poza emango baitio. *"Gazte bat hil da izandako moto istripuan. Gertakaria 7:15ak aldera izan da GI 30 errepidean, Arazuriko zubian, kotxe eta moto batek aurrez aurre jo dutenean. Istripuan gazte bat hil da eta beste bat larri zauritu da..."* Labankada batek bihotza zeharkatu balit bezala, ohe aurrean belauniko paratu naiz eta eskuak hatz-koskorrak zuritu zaizkidan arte estutu ditut. Goragalearekin batera nire bihotzeko samina orro bilakatu da.